

Pilota ♦ Burlatako pilotariak zazpi tanto egin zituen sakez; Irurtzungoak berriz bat bakarrik

Txapelduna finalean dago

Belokik 22-6 irabazi zion Nagoreri erakustaldi itzela emanaz

Jon Ordoñez Garmendia / Donostia

PARTIDA itzela jokatu zuen atzo Ruben Beloki nafarrak eta Eskuz Banakako finalerako txartela ondo merezita lortu zuen Nagoreri 22-6 irabazi eta gero. Jakina zen bezala pilota ederki astinduz atera zen Burlatako pilotaria, eta hiru alditan bidali zuen errebotera. Nagore saiatu zen airez Belokiren pilotakadak moztan, baina ez zen nahikoa izan; Belokik zazpi tanto egin zituen sakez eta bost dejadaz.

Lehen sakea Nagoreren aldekoa izan zen eta lehen tantoa izan zen irurtzundarrak sakez lortu zuen bakarra. Ez zen sake zitala izan, baina Nagoreren atzoko sei tantoe-tatik lau Belokiren hutsak izan ziren: lehenengo sakean kale eginez, eta pilota bat behera eta bi gora botaz. Huts horiek alde batera utzita, ordea, Belokik ez zion lekurik utzi Nagoreri.

Atzera eta dejada

Lehen tantoetan ez zen oso fin ibili Beloki, baina Nagoreren hirugarren tantotik aurrera jaun eta jabe izan zen bere partida jokatzuz: pilota atzera botata mantentzen zuen Nagore seigarren koadroan, eta orduan dejada egin eta tantoa amaitzen zuen. Saiatu zen Nagore airez Belokiren zartakoak moztan, 24 boleja jo zituen eta gehienak seigarren eta zazpigarren koadroetan, baina alferrik izan zen. Bi bipareta izan ziren atzo Nago-



Ruben Beloki eta Jorge Nagore atzo Iruñeko Labrit pilotalekuan jokatu zuten finalerdian.

Beste txartela Eugi eta Arretxeren artean

J.O.G. / Donostia

Aritzbatalde pilotalekuan erabakiko da gaur nor den maiaztaren 28an Eskuz Banakako finala Belokiren aurka jokatu duena (17:00etan, ETB1). Patxi Eugi eta Fer-

nando Arretxe arituko dira nor baino nor finalaren bila. Fabrito Eugi dela dirudi. Final-laurdenetan Armendarizen aurka jokaturako partidaren erakustaldi polita eman zuen, eta aurten txapeldun

izateko aukera asko dituela ikusi zen.

Gaur Arretxek irabazten badu, berriz, iazko Eskuz Banakako txapelketako finala errepikatuko da maiatzaren 28an; Beloki-Arretxe. Final-laurdenetan 22-

14 irabazi zion Errastiri. Partida borrokatuagoa izan bazen ere, Arretxek erritmoa hartzen duenean min handia egiten duela erakutsi zuen. Gaur Zaurautzen hor egon daiteke gakoa.

rek egin ahal izan zuen joko guztia, partidaren ostean berak adierazi bezala jokoaren %90ean Burlatakoaren menpe egon baitzen. 1-3tik 8-3ra

joan zen Beloki dejadei esker, eta gero sake eta errebotekin 8-4tik 17-4ra. Azkenik 17. tantotik 22.era joan zen zuzenean. Partidak 43 minu-

tu iraun zuen, eta Belokik joko bikaina osatu zuen. «Pozik nago, pilota asko gozatu baitut», esan zuen amaieran Burlatakoak.

Egiguren II.a eta Aranburu, garaile Bilbon

Erredakzioa / Donostia

EGIGUREN II.ak eta Aranburuk osatutako bikotearen zat izan zen atzo Bilboko Deportivo jokatu zen I. Telefonica Irekia. Bikote horrek 35-19 irabazi zion Alberdi I.ak eta Castrok osatutako besteari.

Faborito Egiguren II.a eta Aranburu baziren ere, uste baino erraztasun handiagoarekin hartu zituzten mendean Alberdi I.a eta Castro. Txapeldunek ez zuten Ricardo Alberdirengan arerio han-

dirik topatu. Ez zuen atzo bere eguna izan Alberdik, errematatzerakoan bederatzi huts egin baitzituen. Onena Egiguren II.a izan zen, eta bere bikote Aranburuk oso seguru jokatu zuen.

Markagailuan hasieratik ireki zuten aldega Egiguren II.ak eta Aranburuk (6-2, 8-3 eta 11-4), eta partidak aurrera egin ahala alde hori handituz joan ziren (20-7, 28-14 eta 30-17). Azkenean 17. tantoan utzi zituzten Alberdi eta Castro.



Egiguren II.ak eta Aranburuk irabazi zuten I. Telefonica Irekia.

txokoan

Elizalde eta Eizagirrek 40-39 irabazi zieten Altuna II.a eta Aizpururi

Tanto bakar baten aldearekin irabazi zieten atzo Euskalen Elizalde eta Eizagirrek Altuna II.ari eta Aizpururi. Eizagire nagusitu zen atzealdean, baina Altuna II.ak eta Aizpuruk bigarren zati bikaina jokatu zuten. Matxinek eta Auzmendik, berriz, 27an utzi zituzten Urretabizkaia I.a eta Zubeldia. Galarretan Altuna I.ak eta Iriartek ezin izan zuten Zeberio II.a eta Lizasorekin eta 35-40 galdu zuten. Bitoria eta Lekunberrik mendean hartu zituzten Iribarren eta Etxabe, 40-29 irabaziz.

Xabier Galarzak gaur debutatuko du Atxondon

Asegarce enpresako atzelari lemoarrak, Xabier Galarzak, gaur egingo du profesionaleko bere debuta Atxondon (Bizkaia). Atxarte Pilotalekuan Elkartearen zilarrezko ezteiak ospatzeko pilota jaialdia antolatu dute (12:30). Pablo Berasaluzerekin arituko da Xabier Galarza gaztea, Urionaguena eta Pinedoren kontra. Atxondoko pilota eskolako haurrek jokatu dute lehenengo.

gaurko partidak

ZARAUTZ. 17:00 (ETB1).

- Eskuz Banakako Txapelketako finalerdia: Eugi / Arretxe
- Ariznabarreta-Errasti / Etxaniz-Zezeaga
- Minguez-Balardi / Goñi I.a-Almadoz.

SANTO DOMINGO. 17:00.

- Del Rey-Sukia / Camarero II.a-Auxkin
- Santo Domingoko Torneoako finala: Capellan-Lassa III.a / Titin III.a-Goñi III.a
- Dani-Matute III.a / Gabarri I.a-Gastesi.

ASPARIEGOS. 18:00.

- Agirre-Taberna / Barberito VI.a-Rai
- Alustiza-Armendariz / Unanue-Zearra.

GALARRETA. 16:00.

- Bereziartu-Badiola / Zalakain-Etxeberria II.a
- Altuna II.a-Zubeldia / Urretabizkaia I.a-Aizpururi
- Matxin-Etxabe / Zeberio II.a-Txikuri
- Iribarren-Amenabar / Zeberio I.a-Zestau III.a.

biharko partidak

TOLOSA. 17:00.

- Gorostiza-Galarza IV.a / Arbizu-Nalda III.a
- Errestoan Irabazi torneo: Ruiz / Pascual
- Koka-Imaz / Beloki II.a-Errendonea.

GERNIKA. 16:15.

- Mendi-Alberdi III.a / Berraondo-Egiguren
- Armendariz-Aranburu / Konpa-Kastro
- Lander-Elizegi / Alberdi II.a-Barrondo
- Goikoetxea-Enbil / Etxalus-Erkiaga.

astearteko partidak

DEPORTIVO. 17:00.

- Egibar-Ziskar I.a / Zeberio-Ibarra
- Daniel-Juan Pablo / Ziskar II.a-Garrido
- Urkia-Beldarrain / Urkijo-Gorostiaga.